



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.aoiz.es – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

3. zenb. – 2017ko Apirila
MARTXOKO LABURPENA

Bilkura arruntean hartutako akordioak

Agoizkoa Udalak, 2017ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, 0-3 urtekoen Haur Eskolako gestioa berritzeko baldintza pleguak onetsi zituen. Uda honetan bukatuko da Pinpilinpauxa enpresarekin gaur egun indarrean dagoen kontratua, eta deialdi berriaren bidez zerbitzua 6 urteetarako adjudikatu nahi da.

Halaber, jakin ziren ludotekako gestiorako baldintzak eta edukiak. Pleguak aho batez onetsi ziren. Urte bateko adjudikazioa egingen da -2017ko ekainetik 2018ko maiatzera- eta 4 urtez luzatzeko aukera izanen da. Berrikuntzarik nabarmena da herriko elkarrekin kudeatuko direla ludoteka guztiak, hots, neguko ludoteka (euskaraz

izanen da), udakoa (euskaraz eta gaztelaniaz) eta udalekuak (euskaraz).

Horretaz gain, pasa den otsailaren 10an enkantea egin eta, udalak herri lurretako bazkak adjudikatu zituen heldu diren 8 urteetarako.

Adostasuna izan zen ere hiru langile kontratatze erabakia hartzeko. Lanpostuetarako deialdia gizarteratze errentaren jasotzaileei zuzendu zitzaien. Dagoeneko, langile berriak lanean hasi dira udaleko zerbitzu anitzeko brigadan, eta haien kontratuek urte bateko luzapena izanen dute.



Bilkura berezia

Martxoan osoko bilkura berezi bat egin zen ere. Hainbat gai zeuden aztertzeko eta guztiekin adostasuna egon zen.

Bertan erabakitakoaren artean nabarmentzekoa da udala Hezkuntza ikastetxe publikoetako obrak eta hobekuntzak diruz laguntzeko deialdira aurkezteko erabakia. Izan ere, Agoizko ikastetxean sarrerako leihoak, haizea mozteko egitura, ezkaratza eta jantokiko leihoak aldatu eta berritu nahi dira. Egiteko lan horiek guztiak beheko solairuan daude.



Ados agertu ziren ere gazteri politika publikoak bultzatzeko dirulaguntzen deialdira aurkezteko proposamenarekin.

Hori dela eta, hurrengo hilabeteetarako planteatu diren aktibitateen artean honako hauek daude: irteera bat egitea Irati Parke Naturalera, zaldiz ibiltzeko ateraldia eta arku-tiro egitea, abentura antzitzeko asteburua, spinning-zumba saioa eta Zarautzera irteera bat egitea (surfa egiteko).

Udal zerbitzu berri bat, martxan

Udal gestioa erraztu eta azkartzeko, Udaletxeko bulegoetan datafono bat jarri da. Horren bidez, nahi duenak modu erraz, azkar eta seguru batez egin ahalko ditu ordainketak, eskudirua erabili behar izan gabe. Udaletxeaz gain, Kanpondoa kirol guneko instalazioetan ere erabilgarri dago dispositiboa.



Emakumearen Egunaren kariatara antolatutako ekitaldiak

Azken urte hauetan egin izan zen moduan, Udaleko Berdintasun eta Kultur Arloek programa zabal bat antolatu dute Nazioarteko Emakumearen Eguna dela eta.

Arrakasta handia izan zuen Emakumeak sormen-gai sormen-iturri egitasmoaren IV. Edizioak. Erakusketak sortzaile bat egin zen, zeinetan parte hartu baitzuten herriko artistek hala nola San Migel ikas-tetxeko ikasleek. Ekitaldi horrek hasiera eman zion Agoizko taldeek eta kolektiboek aste osoan zehar egiteko antolatutako programari.

Merkatuko plazan giza mosaikoa egin zen, partaidetza handia izan zuena. Ruth Iturbide Giza eta Gizarte Zientzian doktoreak hitzaldi zinez interesgarria eman zuten generoak gure egunerokotasunean duen eragina aztertzeko. Gainera, parte hartu zuen Frida filmaren proiektioan eta ondorengo eztabaidan. Ekitaldi horretan gauzatu zen 550 euroren ematea. Ainara Blascok egindako Fridica, nahia ahala da erakusketan jasotakoak ziren eta Ruth kide den Zuzenezko Elkartasuna elkarteari eman zitzaizkion.

Ekitaldiz jositako astea izan zen, eta hari bukaera emateko afari bat antolatu zen, adin anitzeko 150 emakume eta gizon bildu zituen. Bertan La Gramola del Amor ikuskizuna eskaini zen.

Gainera, Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen gaiaren inguruko adierazpen bat, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatu eta lortzeko.



Musas inspiradas y musas inspiradoras
Emakumea: sormen-gai, sormen-iturri



Badaude zakila duten neskak eta alua duten mutilak. Argi eta garbi

Udalak atxikimendua adierazi dio Chrysallis elkarteari, adinez nagusi ez diren transexualekiko errespetua bultzatzeko abiatu duten kanpainagatik, eta adierazten jarraituko du. Oraingoan, iragarki txartel bat jarri dugu Kultur Etxean.



HAY NIÑAS CON PENE
Y NIÑOS CON VULVA

BADIRA ZAKILA DUTEN NESKAK
ETA BULBA DUTEN MUTILAK

%100ean diruz lagundutako ikastaroak

Nafarroako Industria Elkartek, Agoizko Udalarekin eta Cederna Garalur elkartearekin batera, herrian emateko trebakuntza ikastaro batzuk antolatu ditu, doan.

Programak Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Ministerioak finantzatutakoak da. Hiru ikastaro eskaini dira, heldu diren hilabeteetan zehar emateko. Zabalik dago, dagoeneko, izena emateko epea, honako telefonoan: (AIN) 948 421 150.

CURSOS 100% SUBVENCIONADOS PROGRAMA DE FORMACIÓN



Certificación básica en Prevención de Riesgos Laborales
Fecha: del 26 de Abril al 17 de Mayo
Duración: 30 horas
Lugar de impartición: Aula de Formación Aurreto León- Apto. de Aoi (Calle Nueva,22)
Contacto: mdel@ain.es - 948421124

EXCEL 2016 - INTERMEDIO (SEMI-PRESENCIAL)
Fecha: del 02 de Mayo al 30 de Junio
Curso online con una sesión presencial el 26 de Junio de 16:00 a 20:00 h
Duración: 25 horas (25 horas online y 4 horas presenciales)
Lugar de impartición sesión presencial: Club de Jubilados de Aoi (Calle Las Eras nº 7)
Contacto: nicolas@ain.es - 948421124

EXCEL 2016 - AVANZADO (SEMI-PRESENCIAL)
Fecha: del 02 de Mayo al 30 de Junio
Curso online con una sesión presencial el 27 de Junio de 16:00 a 20:00 h
Duración: 24 horas (20 horas online y 4 horas presenciales)
Lugar de impartición sesión presencial: Club de Jubilados de Aoi (Calle Las Eras nº 7)
Contacto: sirrona@ain.es - 948421150

Bertan ere informazioa osagarria eskaintzen dute.

Honako hauek dira trebakuntza ikastaroak:

- LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA. OINARRIZKO ZIURTAGIRIA.
- EXCEL 2016 – MAILA ERTAINA (ERDI-PRESENTZIALA).
- EXCEL 2016 – MAILA AURRERATUA (ERDI-PRESENTZIALA).

DYA Nafarroako trebakuntza programa



en Aoi
Agoitzen

DYA NAVARRA ENSEÑA
ESCUELA DE FORMACIÓN

DYA Nafarroak Agoitzen apirilean zehar egiteko hiru tailer interesgarri antolatu ditu.

Interesatuta badin bazaude, hemen eman dezakezu izena:

INSCRIPCIONES PARA CUALQUIER CURSO EN _IZEN-EMATEAK (IKASTAROA GUZTIAK)
aoiz@dyanavarra.com T. 669 774 999

HAURREN LARRIALDIEI AURRE EGITEKO LEHEN SOROSPENAK
(3 ordu)
Eguna: Apirilaren 4a (asteartea)
Ordua: 17:00-20:00
Prezioa: 20 €
DOAN (DYA Nafarroako boluntarioak)

OINARRIZKO BIZI EUSKARRIA ETA DESA
(8 ordu)
Eguna: Apirilaren 30a (igandea)
Ordua: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
Prezioa: 70 €
DOAN (DYA Nafarroako boluntarioak)

DESA BIRZIKLAI
(4 ordu)
Eguna: Apirilaren 30a (igandea)
Ordua: 16:00-20:00
Prezioa: 35 €
DOAN (DYA Nafarroako boluntarioak)

Aoiz-Thialleren arteko anaitzea

Eguberrietan Agoitzen egindako jaialdian lortutako diruari esker, hala nola zozketa baterako txartelen salmentarekin lortutakoarekin, Tivaouane eskualdean, Thialle-n hain zuzen ere, erditze-areto bat eginen dute herriko osasun etxekoa hegala batean.

Han haur asko jaiotzen dira, eta be-

harrezkoa egiten zaie medikuaren kontsultategia eta erditzeetarako alderdiak banatzea. Duela zenbait urte arte emagina etxeetara joaten zen, baiian orain kontsultategian egiten da, eta txikia gelditu da, izan ere bakarrik bi areto dira eta kontsultak egiteko, erditzetarako edo txertoak jartzeko, besteak beste, erabiltzen da.



Erditze-areto berriarekin arreta hobe eskaini ahalko zaie ama berriei.

Agoitz eta Thialle herrien arteko anaitze ekitaldi sinbolikoa egin zen JEREJEF boluntarioen elkar-tearen bidez.



Zuhaitzaren Eguna

Berriki Agoitzen ospatu den VI. Zuhaitzaren Egunean bi eremutan jardun zen. Herriko hamarka lagunek erantzun zioten frontoiko parkean antolatutako zitari, eta, egitekoa errazteko eguzkia lagun izan zuten.

Frontoian bertan egin zen lehenengo landaketa. Guda garaian fusilatutako aldeko monumentuaren ondoan bi astigar, lizar bat eta indigaztainondo bat jarri ziren. Ondoren, Puente Negra erama-

ten duen pasealekuan bost indigaztainondo eta sabina bat landatu ziren.

Desagertutako zuhaitzen lekuan zuhaitz hostotsuak jarri izan nahi dira eta udan itzala guneak sortzeko leku egokiak aukeratu dira.

Udalak urtero ofizial egin duen zita honetaz gain, 0-3 urtekoen Haur Eskola eta Ikastetxe Publikoak ere zuhaitzaren egun berezia egin zuten.



UMAFY

Urtero egiten duten moduan, Francisco Ynduráin Helduentzako Unibertsitateko irakasle eta ikasleek UMAFYren Eguna ospatu zuten.

Kultur Etxean «Recordando a Pepe Hierro en el XV aniversario de su muerte» izeneko erakusketa izan zen. Ondoren, entzutegian, Palabra de Hierro ikuskizuna eskaini zen. Eta, bukatzeko, bazkari bat antolatu zen UMAFYko irakasle eta ikasle eta gonbidatuentzako.



Cedida por Bilaketa

Korrika

Martxoko Udalak egindako Osoko Bilkuran, aho batez erabaki zen Korrikako kilometro bat erostea, euskararen irakaskuntzan ari den entitate antolatzaileari laguntza emateko.



Martxoko kultur balantzea

Zenbait izan dira martxoan zehar udaleko kultur arlotik antolatutako ekitaldiak.

Emakumearen Egunaren inguruan egindako ekitaldiez gain, liburutegian Sergio Salinas ipuin kontalaria izan zen, Sein Pirata, koloreen bila ipuina eskaini zuena.

Kultur Etxeko entzutegia bete zen bertan antolatutako Nafarroako Bertsolarien Txapelketako 43. Edizioko final aurrekoa zela eta. Kan-

poraketan Anaitasunean ospatuko den finalean aritzeko honakoak sailkatu ziren: Eneko Fernández, Aimar Karrika eta Julen Zelaieta.

Martxoaren bukaeran eta apirilaren hasieran Euskal Herriko Narrastiak eta Anfubioak erakustea ikusgai jarri da. Bertan jaso eta erakutsi dira Aranzadi Zientzia Elkarteko Ramón Aranbarri argazkilariaren eta erakusketako komisario Vanessa Sarasolaren argazkiak.

Martxoan ere egin da Kulturgu-neak 2017 urteko egutegian aurrikusitako bigarren bilera. Bilkurako gai nagusia Sanisidroak eta abuztuko jaien programa zehaztea izan zen. Momentu honetan, programa dauden aukerak aztertzen ari dira: orkestrak, suak eta beste ekitaldi batzuk.



Elkarpelota II. Txapelketa

Pasa den urtean Elkarpelota Eskuz Banakako I. Txapelketak gure herrian izan zuen harrera errepikatzeko asmoz, Toki Eder pilota lekuan berriro ospatu zen txapelketaren bigarren edizioa, oinarriko esku pilota landu eta garatzeko.

Lehiaketan zazpi kategoria zehaztu dira: aurre-txikiak, txikiak, mutikotxoak, haurrak, kadeteak, gazteak eta senior. Kategoriaz guztietarako txapela dago. Aurtengoa ere pasa den urtean izandako arrakasta (500 lagun bildu ziren Labriten) errepikatu nahi dute.

Agoizko ibilbidea

Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuak «¡Con botas y a lo loco! Esta primavera vas a coleccionar senderos sin parar» izeneko tuita erabili du FITUREn aurkeztu zuen liburuxka bultzatzeko. Argitalpenean Agoizko ibilbide bat jasota dago.

23 Río Irati - Ermita de San Román
Irati ibiaia - San Roman baseliza

AGZ - Concejales Propietarios
AGZ17 - Pasa aerea arriak

Para que puedas conocer la ribera del río Irati, el travesado por su puente medieval, hasta alcanzar la ermita de San Román donde se firmó el tratado de paz entre los reinos de Navarra y Aragón en 1479. Posteriormente sus restos se convirtieron en un templo de gran belleza en el que se conserva la nave apodada para conservar los alimentos. Cerca se encuentra el mirador sobre el río Irati, desde el que se observa el antiguo asentamiento de Iruñea, conjunto de edificaciones industriales de principios del S. XX. Retomamos el camino de vuelta, cruzamos la pasarela sobre el río y vamos hasta el Pradón.

Bila herriko ibaiaren ertzean dagoen Ermita de San Román. Ermita hona irateko ibaiaren gainean dagoen San Román baseliza izan daiteke, bertan 1479an firmatu zen Iratiaren bakearen hitzarmenaren sinatu zuten lekuaren ondoren. Hain zuzen ere, bertan 1479an sinatu zen Iratiaren bakearen hitzarmenaren sinatu zuten lekuaren ondoren. Hain zuzen ere, bertan 1479an sinatu zen Iratiaren bakearen hitzarmenaren sinatu zuten lekuaren ondoren.